

BALOREZKO PROPOSAMENA



Eñaut Amundarain
Katerin Artola
Alain Etxeberria
Igotz Errazkin

Eñaut Amundarain, Katerin Artola, Alain Etxeberria eta Igotz Errazkinek EKIA taldea osatzen dugu. Aplikazio berri bat sortzekotan gaude, hain zuzen ere, txirrindularitzaren inguruko aplikazio bat, txirrindularitzaren informazio guztia biltzen duen aplikaziorik ez baitago. Gainera, informazio guztia biltzeaz gain "online" denda ere edukiko luke maillotak, kaskoak... saltzeko.

Gure aplikazioa erabiltzen baldin badute, ez dute inongo informaziorik beste aplikazio edo webguneetan bilatu beharrik, gure aplikazioak informazio guztia jasoko baitu. Gainera, oso erraza izango dute aplikazioan bertan behar dituzten materialak eskuratzea. Ondorioz, denbora asko aurreztuko luke bezeroak eta erosotasuna irabaziko luke. Honetarako honako balioak izango lituzke:

Alde batetik, **nobedadea**, gure inguruan ez dagoelako horrelako aplikaziorik, hau da, lehenengo aplikazioa izango litzake gure aplikazioa txirrindularitzaren inguruko informazioa bere osotasunean azaltzen duena.

Beste aldetik, bezeroen **lana erraztuko** luke aplikazio honen erabilerak. Zergatik? Txirrindularitzaren inguruko informazioa nahi izanez gero, gure aplikazioan topatuko luketelako informazio guztia eta ez luketelako webgune batetik bestera informazioa aurkitu nahian ibili beharko.

Horrez gain, balio kuantitatiboari dagokionez, **prezio** onean lortuko lukete gure aplikazioa jaistea, dohainik hain zuzen ere eta hau oso positiboa izango litzake gure bezeroentzat eta baita bezero berrientzat ere. Hala ere, online denda ere edukiko duenez aplikazioak, hau da, maillotak... salduko ditugunez, hauek ez dira dohainik izango baina bai prezio onean, beste webgunetan saltzen diren prezio baxuagoan.

Era berean, balio kualitatiboari dagokionez, **diseinu** ezohikoa izango luke, aplikazio gutxi baitira informazioa emateaz gain "online" denda dutenak. Normalean, webguneen bidez erosten baita eta ez aplikazio baten bidez.

Bestalde, **eskuragarritasuna** eskainiko genuke, izan ere, gure aplikazioa sortu aurretik ez baitzeuden txirrindularitzaren inguruko informazioa bere osotasunean ematen duten aplikazioak. Beraz, gure sorkuntzari esker, jende gehiagoren eskura jarriko genuke. Gainera, txirrindularitzaren eboluzioa begiratzuz gero, gero eta jarraitzaile gehiago dituela antzematen da eta hau oso positiboa izango litzake gure enpresarentzat.

Gainera, **arriskuak murriztuko** lituzke, izan ere, "maillotak" erosterako garaian aplikazio fidagarria izango litzake eta bezeroek hori antzemango lukete. Hau bezeroek asko balioesten duten elementua da, aplikazioa edo "online" denda fidagarria bada, lehen esan bezala, arriskuak murrizten baitira.

Azkenik, informazio ondo antolatuta egoteak, aplikazioa **erabiltzea erraza** izatea egingo luke eta bezeroek asko eskertuko lukete informazioa bilatzerako garaian.